

Asisko gutuna

2016ko Ekaina. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin, anaitasunez bizi

92. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asisko Frantziskok, bizitasunez beteriko kontakizun batean, San Paulok korintiarrei idatzitako maitasunaren ereserkiaren berrirakurketa egiten du, bere bizitzari egokituz. Eta bertan azaltzen digu egiazko alaitasuna ez dela oinarritzen guztia gure onerako eta handitasunerako gertatzean, baizik eta, senideak maitatzen jakitean nahiz eta hauek gure aurka larriki bekatu egin izan.

Gogoetarako gaia

Alaitasuna anaiartean

Alaitasuna da frantziskotar anaiartearen ezau-garrietako bat. Asko dira osagarriak pertsonen harreman-bizitzan, nahiz familiar-tekoan, nahiz adiskide-arte-koan edo komunitate-koan. Osagarrietako bat alaitasuna da. Honek tonu berezia ematen die komunitate-ko harremani. Komunitatean sarritan, kudeatzen errazak ez diren pertsonaren mailak jartzen dira jokoan, adibidez norberaren alde on eta txarren egia- ren bilaketa, senidearen premien soroste inoiz neketsua, harremana sostengatzen duen egia- titasuna... Alaitasuna olio fina bezala da, har- remanen engranajeak neurri handian errazten ditu.

Alaitasunak atsegina egiten du eguneroko harremanen ohikotasuna. Traba gutxiko hitzek, keinuek eta jarrerak asko errazten dute eguneroko, sarritan errutinazko, elkar-bizitza. Alaitasunak, gainera, gozatu eta drama gutxi-

tzen die momentu zailei, pertsonen alde irris- takor eta sentikorretan sartu behar denean, gai gatazkatsu edo deserosotasun-sortzaileei ekin behar zaienean. Alaitasunak prest jartzen gaitu bizitzako, galeratako edo hausturatako une gogorrak itxaropenez bizitzen.

Baina senide bizitzan bizi denaren sakontasu- naren maila beretik edan behar du une horre- tako alaitasunak. Bada denbora-pasa hutsaren mailako alaitasuna. Bada bizi-energia natura- lean, bizitzarako ditugun indar eta ahalmene- tan, oinarritzen denaren mailakoa ere. Baina bizitzen eta itxaropen izaten laguntzen digun mailarik sakoneneko alaitasuna hau da: gu geu Jainkoak eutsita bizi garela jakitetik sor- tzen dena, Ebanjeliotik datorrena. Alaitasun- maila hauek denak bizitu zituen Frantziskok, eta bere bizitzan eta anaidiarenean txertatuz eta osatuz joan zen.

Bibliako pasarteak: Eg 4, 32-37

Fededun guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz, eta inork ez zuen esaten zeukana berea zuenik, baizik eta dena denena zuten. Apostoluek indar eta eragin handiz egiten zuten Jesus Jaunaren piztueraren testigantza. Jendeak oso estimatuak zituen; izan ere, ez zen haien artean behartsurik, zeren lurrik edo etxerik zutenek, dena saldu eta salmentaren ordaina apostoluen esku jartzen zuten; eta bakoitzari behar zuena ematen zitzaion. Hala egin zuen Josek, apostoluek Bernabe – hau da, Adore-emaile– deitu zutenak; lebitarra zen eta jaiotzez zipretarra. Bazuen soro bat eta, saldurik, ordaina jaso eta apostoluen esku utzi zuen.

Frantziskotar espiritualtasuna

Zein karitate gartsuz iziotuak zeuden Kristoren ikasle berriak! Zein maitasun handia zioten beren erlijio-elkarteari! Nonbaiten denak batera biltzean edo, sarri gertatu ohi zenez, elkarrekin bidean topo egitean, ikustekoa zen hango espirituzko maitasunaren gainezkaldia, amodio guztien gainetik dagoen egiazko maitasunaren hazia zabaltzen zutelarik. Zer gehiago esan? Besarkada garbiak ziren han, sentimentu eztiak, musu santuak, elkarrizketa gozoak, barre eratsuak, aurpegi alaiak; begi xaloa, gogo apala, mihi ezta, erantzun gozoa, bizi-proiektu bera, elkar-zerbitzu bizkorra, ekintza nekaezina.

Elkar berriro ikusten zutenean, hain zen handia sentitzen zuten poza eta espirituko alaitasuna, ez baitziren oroitu ere egiten jasandako zoritxarraz eta pobretasun latzaz... Barru-barruko maitasunez maite zuten elkar, eta amak semea zerbitzatzeko eta zaintzen duen bezala zerbitzatzeko eta zaintzen zuten batak bestea. Hain bizia zen haien arteko maitasun-sua, erraza iruditzen baitzitzaien bizia ematea, ez Jesu Kristo gure Jaunaren izenagatik bakarrik, baita batak bestearen alde ere, eta gogoz gainera.

Otoitza

Jesu Kristo, gure Jaun eta senidea,
itxi gure bihotzeko atea
guk inorengatik gaizki ez pentsatzeko,
inorengatik juzgu eta sentipen txarrik ez izateko,
txarrik ez pentsatzeko, ez egozteko,
intentzioen toki sagaratu
ez inbaditzeko.

Jesus Jauna, zuk egiten gaituzu senide.
Jar ezazu isil-zigilua gure ahoan,
marmarrari edo inoren aukako esamesei
bidea ixteko,
hartutako isil-mandatuak gordetzeko,

jakinik isiltasuna dela
maitatzeko modu lehenengo eta zehatza.

Ernaraz itzazu gure erraietan
sentiberatasun-hariak.
Emaguzu gogo adeitsua
elkarri gur egiteko,
zu zeurekin egingo genukeen bezala.
Eta aldi berean emaguzu jakinduria
adeitasun hori behar bezala
senide-konfiantzarekin lotzeko.
Jesu Kristo Jauna, emaguzu
elkarri begirune izateko grazia. Amen.

Gutuneko azken hitzak

“Bihotz alaiak botikarik onenak haina on egiten du” (Salomon erregea)

2016ko ekaineko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate ekaineko erreferentzia guztiak:

1 Mk 12,18-27	7 Mt 5,13-16	14 Mt 5,43-48	21 Mt 7,6,12-14	28 Mt 8,23-27
2 Mk 12,28b-34	8 Mt 5,17-19	15 Mt 6,1-6.16-18	22 Mt 7,15-20	29 Mt 16,13-19
3 Lk 15,3-7	9 Mt 5,20-26	16 Mt 6,7-15	23 Mt 7,21-29	30 Mt 9,1-8
4 Lk 2,41-51	10 Mt 5,27-32	17 Mt 6,19-23	24 Lk 1,57-66.80	
5 Lk 7,11-17	11 Mt 10,7-13	18 Mt 6,24-34	25 Mt 8,5-17	
6 Mt 5,1-12	12 Lk 7,36-50	19 Lk 9,18-24	26 Lk 9,51-62	
	13 Mt 5,38-42	20 Mt 7,1-5	27 Mt 8,18-22	

Ekainean elkarrekin ospatuko dugun otoitza 30ean izando da 19:30tan



Asis Sarea

646 21 48 96